

Glaziarrak gainbehera azkarrean



Pirinioetakoak desagertzeaz, Glaziarren Babeserako Nazioarteko Urtean

~Doako jarduera irekia
~18:00etan
~Donostiako Miramar Jauregian edo online

Hizlaria: Eñaut Izagirre Estibaritz, Doktoregaia UPV/EHU eta ikerlari kontratatua IPE-CSICen

©Argazkia: Eñaut Izagirre

Mar. 20 2025

Kod. W02-25

Mod.:
Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa
2025

Jarduera mota
Jarduera irekia

Data
Mar. 20 2025

Kokalekua
Miramar Jauregia

Hizkuntzak
Euskara Gaztelera

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Glaziarrek aire libreko liburutegiak dira, planetaren iraganeko artxibo naturalak eta egungo klima-aldaketaren adierazleak. Zerua, beraz, izotzean dago. Konposizio atmosferikoa, aire-burbuilak, sumendien erupzioak, Saharako hautsa... dena erregistratzen da denboran atzera egin zuten gertaeren testigantza gisa, baita gaur egun ere.

Beraz, arrazoiuenez glaziarrek izaki aktiboak eta errektiboak direla, gauza soilak baino eragileak direla, Lurraren zikloetako funtsezko elementuak eta sistema klimatikoaren oinarritzko osagaiak eta planetako ur gezaren erreserba handienak. Goi-mendiko eta poloetako bizitza sozial eta kulturalaren zein eremu basati eta urrunen parte ere badira; gaur egun, tamalez, "arriskuan dagoen espeziea" dira. Glaziarren galerak ondorio larriak eragiten ditu planetako ekosistemetan, ur-balantzean eta gizartean.

Hitzaldi-elkarrizketa honetan, mendiko glaziarren garrantzia aztertuko dugu, bereziki klima-aldaketaren adierazle sentikor gisa duten papera azpimarratuz. 2025a, gainera, Glaziarren Babeserako Nazioarteko Urtea izatea izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak eta, hori dela eta, hizlariak nazioez haratago doan bidaia kolektibo bat proposatzen die entzuleei: Patagonia eta Alaskako izotz-eremu handietatik Pirinioetako azken glaziar txikienetaraino. Paralelismo honen bidez, hausnartzeko gonbidapena argia da; nondik gatoz? (glaziarrek Lurraren memoria naturalaren lekuko dira) eta nora goaz? (izotzik gabeko etorkizuna eta mendikatea gertu ditugu).

Helburuak

*

Programa

2025-03-20


18:00 - 19:15

“Glaziarrek gainbehera azkarrean / Los glaciares en rápido declive”

Eñaut Izagirre Estibaritz | Doktoregaia UPV/EHUn eta ikerlari kontratatua IPE-CSICen

Ana Galarraga zientzia-komunikatzaileak hizlariarekin elkarrizketa izango du hitzaldia amaitutakoan / La divulgadora científica Ana Galarraga mantendrá un diálogo con el ponente una vez finalizada la conferencia

Irakasleak



Eñaut Izagirre Estibaritz

UPV/EHU eta IPE-CSIC

Eñaut Izagirre Estibaritz (Elgoibar, 1990) Doktoregaia UPV/EHU eta ikerlari kontratatua IPE-CSICen Txikitatik Euskal Herriko eta Pirinioetako mendietan hazia eta hezia, Geografia ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Zientzia Antartikoetako masterra egin zuen Magallaeseko Unibertsitatean (Punta Arenas, Txile), Glaziologiako aipamena jasoz. Bere ikerketa proiektua erlieberformen (geomorfologiaren) eta glaziarren iraganeko aldaketen inguruan garatzearekin batera, nazioarteko erakunde ezberdinekin hasi zen kolaboratzen. 2015ean, National Geographic-en beka bat jaso zuen, Hego Amerikan hegoaldeen dagoen Cloue izotz eremua esploratu eta zientzia-lanak egiteko espedizioa gidatzeko. 2018az geroztik, UPV/EHUko Geografia Sailean eskolak emateaz (2021-2023), doktoregai da UPV/EHU eta ikerlari gonbidatua Basque Centre for Climate Change (BC3) ikerketa zentroan. Bere doktorego-proiektuak Suaren Lurraldeko Darwin mendikateko glaziarren bilakaera ikertzea du helburu eta 2024ko otsailetik Pirinioetako Ekologia Institutuan (IPE-CSIC) ari da lanean CryoPyr ikertaldeak Pirinioetan burutzen dituen proiektu aktiboetan.

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE

2025-03-20 ARTE

Orokorra

0 EUR

IZEN EMATEA ONLINE ZUZUENEAN

2025-03-20 ARTE

Orokorra

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa